

## Ekudor eta Uzbekistango jantza taldeak Areatzan hilaren 20an

12. orrialdea

## Zeanurik irabazi dau Bizkaiko Herriarteko pelota txapelketea

Finala Zeanuriko frontoian jokatu zan bagilaren 28an. Zeanurik Orozko izan eban aurkari eta 3-0 irabazi eben etxeokak. Kadete mailan, 22-3 nagusitu ziran Zeanurikoak, Gazte mailan 22-15 eta Nagusi mailan 22-4.

11. orrialdea



## Irati Astondoa txapeldunorde Euskal Herriko Aizkora Txapelketan

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 321

2019ko garagarriaren 1a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Hiru kontzertu gau Lemoako jaietan

**G**aragarriaren 26an, barikuan, Tributo M.C.D. taldearen kontzertua egongo da eta ondoren Urrats erromeria taldea. Hurrengo egunean, Zea Mays eta Gozategiren kontzertuak izango dira eta martitzenean, hilak 30,

Liher taldearen kontzertua eta erromeria Oxabi taldeagaz. Zazpi egunetako egitaraua prestatu dabe Lemoan. Kirolak, mozorroak, gastronomiak, alkartasunak, play-backak eta euskal jaiak euren eguna izango dabe jaietan. **7. orrialdea**




## Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketea

**Z**ertu Kultur Elkartek, Igorreko Udalen laguntzeagaz, Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketea ipini dau martxan, Basauriko Euskarabila alkartearen eta Dimako Kalenturak ipuin erotikoen lehiaketai segidea emoteko. Arratia izena hartu arren, Euskal Herri osoko lehiaketea izatea gura dau Zertuk.

Lanak euskeraz izan behar dira eta bialtzeko epea zabalik dago zemendiaren 15era arte. Hiru sari egongo dira, lehenengo saria, 600 eurokoa izango da, bigarrena, 400 eurokoa eta Arratiako lanik onenak 250 euroko saria jasoko dau.

Lehiaketearen helburuak, egile gazteai edota hasibarraia hasteko plazea eskaintzea; gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea; berbakera erotiko-afektiboa euskeraz lantzea eta, atenez, genero erotikoren inguruko ikuspegi zabalak emotea dira. **8. eta 9. orrialdeak**



### DIMA

## Dimako eskoleak Eskola Jasangarria Ziurtagiria hirutan jaso dau

Ziurtagiriak lau urteko baliagarritasuna dauka. Hau lortzeako kanpoko auditoretza zorrotza gainditu behar da eta eskoleak ingurumenagaz daukan konpromisoa benetakoa dala adierazoten dau. Agenda 21en barruan, aurreko ikasturtean Stop Plastikoa! programea eroan eben aurrera. 2019-2020 ikasturtean, ekonomia zirkularra landuko dabe. Jasangarritasunagazko konpromisoak beteteko hainbat proiektu daukiez ikastetxean. **12. orrialdea**



### DIMA

## Arratiako Egoitza, 25 urte zaintza behar daben edadekoak jagoten

Egoitza 1994an sortu eban Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) eta 25 urte honeetan, hazi eta proiektua garatzen eta sendotzen joan da. Egoitzan 60 plaza dagoz eta Eguneko Zentroan, hoguei. Lantalde handiak egiten dau behar han, zerbitzurik osoena eskaintzeko. Erizainak, laguntzaileak, medikuak, fisioterapeutak, psikologoak, animazionakoak, garbitzaileak, sukaldariak, administratzaileak, mantenimintuak eta zuzendaritzak osotuten dabe taldea. **5. orrialdea**



### IGORRE

## Goi-tensino linearako desjaubetza aktak sinatu barik geratu dira

Bagilaren 18 eta 19an, Red Eléctrica Española (REE) Igorren egon ziran Gueñes-Itsaso goi-tensino lineako proiektuan dagozan lurren desjaubetza aktak sinatzeko. Igorreko Udala proiektu honen kontra dagoanez, ez zan agertu eta aktak ez ziran sinatu. Ha-ta guzti be, laster Gubernaren Ordezkariordeztatik deituko dabela aktok sinatzeko uste dau Illart Gumuzio Igorreko alkateak eta orduan derrigor sinatu beharko dituala.

Garakoi, Garai eta San Kristobalitik pasetan dan goi-tensinoko linearen proiektua epaitegietan dago, bide horrek ez daualako beteten sai zuriaren babeserako Foru Dekretua. **5. orrialdea**



# Literatura txokoa

## ROSA ITZULI DA

Gai korapilatsuari heldu deutso Pako Aristik nobela honetan. Korapilatsua, baina nire belaunaldiko euskaldunok ondo-ondoan dogun eta jai ginanetik izan dogun gaiari.

Rosa, hainbat urte espetxean egin ostean, etxera itzuli da. Euskal Herriaren aldeko burrukan bizitzako urterik onenak emon ostean, zer topau dau? Urteak lehenago imajinatu ez eban egoera politikoa; etsipen zama moduko bat, nork bere bakardadean aldean daroana. Baten bat atzetik jabilkon sensazioa, zeltan beti; kaletik ibiltea paseoa barrik estualdia da. Egunkarien manipulazioa, eta barriak kontetako modu bihurria. Ama zahartua,

burua erdi galduta; baina halanda be, tarteka gaztaroko sekreturen bat aitortuten badakiena. Erakunde armatuaren kide izateak eskatzen dauan ardura. Atentadu batek eragiten dauan ezinegona. Eta asmatuko ez geunkeana... gure gizartean hainbatetan eta hainbatetan isilpean gorde behar izan diran amodio debekatuak.

Istorian aurrera egin ahala gaur-gaurko gai horreek guztiak bat egiten dabe protagonisten bihotzetan, eta horreen barneko sentipenetan murgiltzen da egilea. Amaieran liburu onak daukien ezustekoa be eukiko dogu; baina ezustekoa zein dan argituteko irakurri egin behar da liburu.

Liburu atsegina leiduteko, eta

aldi berean, gogoetarako bidea emoten dauana. Beharbada, behar dan moduan egin ez dogun gogoetea, baina gizarte osasuntsu batek egin beharko leukeana. Errealidade gordina erakusten deuskun liburu, geure errealidadea.

Rafa Ugalde

Pako Aristi

Rosa itzuli da

Erein argitaletxea

224 orrialde



### TELEFONO INTERESGARRIAK

#### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

#### Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

#### Garagarriaren 1etik 7ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

#### 22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

#### Garagarriaren 8tik 14ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

#### 22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

#### Garagarriaren 15etik 21era

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

#### 22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

#### Garagarriaren 22tik 28ra

N. Amieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

#### 22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

#### Urte osoan

#### 22:00etatik 09:00etara

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

#### Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

#### Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

#### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

#### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

#### Parketxea

94 673 92 79

#### Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

#### Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

#### Euskotren

902 543 210

#### Areatzako Notariotza

94 673 92 26

#### Bizkaibus 94 612 55 55

#### Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdira: 05:15etik 06:45era.

Ordu: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era ordu.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu.

Jaiegunetan ordu 07:15etik 22:15era.

#### Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

#### Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu

behin.

#### Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era ordu.

#### Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era ordu.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu

behin.

#### Zeanuri-Lemoa-Bilbo

#### (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era ordu.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Bilbo-Lemoa-Zeanuri

#### (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

#### Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

#### Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ermibarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

#### Arriorriaga-Ermibarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

#### La Union 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandio korik ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Raket Aldekoa Diez, Alvaro Rabelli eta Irati Urien.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizidadea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

#### Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Dimako jaiak

Dimako jaietan txupina Txumulueta Pelota Taldeari egokitu jako. Jai Batzordean, urte luzeetako ibilbidea eta herrian daukan errotzea aitortzeaz gainera, esku pelota kirolean bardintasunaren alde egin dauan lana azpimarratu gura izan dogu. Zoriondu ikasturte honetan frontoian neska piloak ikusteko aukerea izan dogulako herrian, eta zoriondu herriko pelotariak, Amaia Aldaik, Master Cup Promozino mailan lortu dauan txapela, eta Danel Elezkano.

Dimako jaiak, zeozer badaukie aitatzeko, herritaren parte hartzea da.

Ekitaldietatik parte hartze gehien daukana, parte hartze aktibo moduan ulertuta, Tortilla eta Tostada Lehiaketek da. Herriko kuadrillak, plaza inguruak beteten dabez butanillo, zartagin eta aparjuakaz. Herri giro polita izaten da eguenean.

Beste ekitaldi batzuk be, urtero-

urtero mantenidu egiten dira arrakastatsuak diralako: pelota partiduak, euskal jantzak, bertsolariak, umeentzako tailerrak, jubila-  
duen bazkaria...

Aurtengo barritasunak herri-  
ra zabaldu zan inkesta batetatik datoz. Jai Batzordean, ekitaldi batzuk kendu eta jaiak 3 egunetara laburtuteko proposamena egon zan. Eztabaidea ez zanez argitzen, jenteari galdetzea ebatzi zan eta holan, gai horreen inguruan galdetzeaz gainera, proposamenak botateko aukerea be emon zan. Nahiko arrakastatsua izan zan eta ekitaldi barriak antolatze bidea zabaldu zan. Hau dala eta, lehen aldiz, ekitaldi honeek antolatu dira:

1. Balkoi eta lehioak apaintzeko txapelketea. Helburua, herriari itxura polita emotea da.
2. Herri bazkaria egitetik herri afaria egitera pasau gara.
3. Inkestetan, zezanak edo bigantxak eskatu ziran, baina aurrekontua eta baldintzak ikusita ezi-

nezkoa zanez, zezen puzgarriakaz Dimako San Ferminak antolatu doguz.

Azpimarratzeko ekitaldiak:  
- Bagilak 29ko kontzertua, Arkada Social.

- Bagilak 30eko bertso saioa: Onintza Enbeita, Oihana Bartra, Nerea Ibarzabal eta Xabat Galletebeitia.

- Bagilak 30eko umore antzerkia: *Kale gorrian*, Cía. Barsanti taldearena.

Amaitzeko, aitatu herriko alkarte desbardinak jaiak egon daitezcan egiten daben beharra.

Eskerrik asko: Andraizea Andra Alkartea, Zamakola Jubiladu Alkartea, Txumulueta Pelota Taldea, Dimako Ongi Etorri Errefuxiatuak, Ilunbe boulderra, Gaztebarri Jantza Taldea, Guraso Alkartea, Dimako eskolea, Etxean gure doguz taldea, Dimetaleroak Kultur Elkartea eta Bertso Eskolea.

### DIMAKO JAI BATZORDEA

## Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

### BEGITU ALDIZKARIA

## ERETXIA



### IÑIGO ARANBARRI

Irakaslea eta idazlea

## Iraultza eta pribilegioa

**P**intadaz eman diote ongi-  
gietorria Enbeitari, bertso saioaren aurretik giroa berotu behar eta: "Onintza, ospa Algortatik!". Algortako Askatasun Deiadarra taldearen komunikatu batean aurkitu dut arrazoia. Boikot deia da, "Che komandante sozialista iraultzailea iraindu eta difamatu zuen Enbeitaren" kontra, "doan tokira doala".

Iazko urrikoa du artikuluaren Enbeitak. Bertan, mitoaren atzeko gizonarengan jarri zuen fokua, eta iradokitzen kezka zuela, eta nahiago zuela ez jakin benetan nolakoa zen arlo pribatua Guevara, susmoa duelako hark ere erabili zuela gizon izatearen pribilegioa.

Ezaguna da Guevara gazteak emakumeekin izaniko jarrera, berak kontatzen ditu *Bidaia-oharrak* liburuan: "ni kanpoan geratu nintzen, katigatu nuen beltz batekin; 16 urterekin, oilo bat baino putagoa zen"; edo Txilen dela, Pascua uhartera abiatu zain: "han ohoretzat dute mutilagun zuria izatea. Han lana, emakumeek egiten dute dena; norberak jan, lo eta haiek pozik eduki".

Horra gizarte hobe baten aldeko ikonoa beste gizon asko bezala portatzen. Orobat, gogoan dut nola erori zitzaigun Pablo Neruda, gure amodio gazteen poeta, haren memorietan irakurri genioan nola bortxatu zuen neska-mea Sri Lankan kontsul zela. Eta hutsa bakarrak balira.

Iraingarria da gogoratu beharra: matxismoa orratz transbertsala da, pribilegioak mendeetan egintako bi-

dean barrena, gizonik atzerakoietatik iraultzaileenganaino doana. Eta hala ere, argirik badela sinetsi nahi dut. Buenaventura Durruti etxean dago, harrikoa egiten eta ume-zain, bi lagun heldu zaizkionean bisitan. Bat adar jotzen hasi zaio: "zer habil? Horiek emakumeen lanak dituk!". Eta erantzuna, braust: "uste baduk anarkista batek tabernan egon behar duela andrea lanean delako, esan nahi dik ez duala pitorik ulertu".

Alegia, etxean hasten dela jendarte justuago baten aldeko lehen borroka. Ez gabiltza ondo Enbeitaren kezka ulertzen ez badugu.


\* Bagilaren 23an BERRIAN argitaratutako testua

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Lanparra



Lainoari darion euri-tantakada finari, zirimirri be esaten jako (lamparra, ahoskatuta). Batuan, lanbro da. Eguraldiagaz lotuta, hona hemen RM Azkuek Zeanurin jasotako esakerea: "Madalen-egunean euririk ez bada, gaztaina-urte eta iko-urte ona; lanparra bada, urte txarra". Berba honek baina, badauka bigarren esangurea: alkoholez ganezka eginda, nordea galduta ibiltearen egoerea, hau da, mozkorra. Gontzal Mendibilek idatzitako adibidea dakargu: "Gaztetan, sarritan etorten ei zan lanparragaz (alborakageagaz) etxera".

**BATZ 50 urte**  
BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)  
IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA



## LUMATUTEN



JANIRE LOPEZ

## Pornografia

**I**zango dira bost urte gazteen artean pornografiaren erabilerak gora egin izanak ekarri ahal ebazan arriskuen gaineko eretxi artikulua bat idatzi nebala. Aitatzten nebana, oro har: sexu-heziketa patxadazko baten faltan, gazteak pornografiatik jasotzen ebela sexu-harremanai buruzko informaziorik poto-loena (eta sarritan, *bakarra*), eta ordurako bazirala sexologia konsultetan horren ondorioak azalduten. Horreek holan, bat nentorrala sexu-heziketea *derri-gorrezko ikasgai* gisa aldarrikatuten eben adituakaz, baina, horrezaz gainera, heziketa horrek pornografia modu zuzenean tratau eta *erabili* behar ebala ezinbestean.

Orduan ez neban imajinau be egiten, hala eta guztiz be, bost urteotan kontuak horrenbeste egingo ebanik okerrera. Estadistikak erakusten dabenez, gero eta umeago hasten dira gazteak pornoagaz, eta, edukiak muga-gabeak diranez, modu sistema-

tiko -eta konpulsiboan- ikusten dabe gaur egun. Eduki bortizdun pornoak, beste aldetik, neurri barik egin dau gora azken aldion, eta ezin jakin zein dan lehena, *eskaintza* ala *eskaria*, baina edoze-lan be, bereziki *bortitz* eta *iraingarria* dana da gaur egun, ikusiena.

Fantasia onargarria da beti, jakina, baina pornografiak ezin ditu benetako hartu-emonak baldintzatu, eta adituak urteak daroez pornografia hartu-emon interpersonalak aldatzen dabizala ohar-tarazoten: komunikazio, afektibitate, edo intimidaderik bako irudien kontsumo neurribakoak hartu-emon sexualen despersonalizazio progresiboa dakar, eta sumisinoa, desoreka eta biolentzia modu esplizituan eten barik ikusteagaz bat, bortizkeria sexuala normalizetako joera antzematen da gazteen artean. Badaukaguz, zoritxarrez, bortizkeriaren *normalizazio* horren adibideak.

Urgentea da, beraz, sexu-heziketa egonkorra institutueta, hezitzaile, sexologo, guraso eta gazteak modu bateratuan adostutakoa, eta prebenzintotik askoz be harago doana. Ezinbestekoa da era berean, inoz baino gehiago, beste alde batera begiratu ordez, gazteakaz batera pornografiari zuzenean heldutea, zentsura barik, modu *kritiko* eta *arduratsuan* erabilten ikasi dagien, eta sexu-hartu-emon gozagarrienen kakoa, hain zuzen be, *hartu-emonean* dagoala barneratu.

## ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

1

San Juan eguna heldu jakun ta zebleau gindun ederto aintzina hasi zan ohitorea gaur egun ez galduteko solo inguruko bedar ta ideak bide batez garbitako suaren bueltan gau luzeari ongi etorria emoteko.

2

Zapoak eta subeak erre ziren arren sasiek ez gaur egun gure etxe inguruak lotsagarri dauz tamalez gure gizarte berriak falta dau horrenbeste interes kontzientzia apur bat imini daigun behingogaitik mesedez.

3

Eskerrak oindo gure etxeko adineko jenteari eurek mantentzen dabez soloak ta basoak garbi garbi gazteok buruz jokatu daigun ekin daigun lanari zor deutsegue gure ahaide ta euren errespetuari.

4

Pena emoten dau auzoetako panorama ikustea hemetik hamar urtera dana sasiz josita izatea noiz ikusiko dogu non dauen galtzearen limitea txarrena dogu ikusi eta ezebe ez egitea.

5

Ni naz lehenengo kritika honen errudunetarik bat baserrietan jaiok garen hainbat seme ta alabak bihar etziko baserri eta solo horrin ugazabak ez daiguzan ba arpelik galdu zortez jasotako danak.

6

Ondo dakigu baserriek ez jatorkula loteririk ta horregaitik nekazaritzak ez daukola jarrapeinik baina natura ta ganadua biak joakuz loturik baina urrin barik eztogu euko sanjuanetan baserririk.

## BEGI TXINDORRA

**U**rtero lez, gure Argazki Lehiaketan parte hartu eta zuen biajeetan aterako argazkiak, irakurle guztiakaz konpartiduten konbidatzen zaitue BEGITUK. Betiko lez, irabazleentzat sariak egongo dira.

## Argazki lehiaketaren oinarriak:

- 1.- Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasotzen dauan edonor.
- 2.- Gaia: argazkiak 2019 urtean egindako biajeetan edo oporretan egindakoak izango dira.
- 3.- Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
- 4.- Nora bialdu: Argazkiak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera bialdu behar dira.
- 5.- Aurkezteko epea: 2019ko garagarilaren 1etik urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, horrek ez dau esan gura argitaratutako horreek diranik irabazleak.
- 6.- Epaimahaia: BEGITU Aldizkariako erredakzino taldeak osotuko dau.
- 7.- Epaiak: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaiak emoteko eta urri bigarrenegun argitaratuko da aldizkari honetan.
- 8.- Lehenengo saria: Persona birentzako astegoien bat Euskal Herriko landetxe baten. Sari gehiago egon daitezke, epaimahaiak egoki jo ezker.
- 9.- Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenak honeek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisci.com

**agoa** Ortodontzia  
hagin klinikoa  
Implanteak  
Estetika  
Marina Uriagotia Aldekoa  
Odonologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zentzuak 101  
R.F.S. 21/06

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnua. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Sabandakia Agiri 11  
**Erroitz**  
Agiriaren gortik esanik.



## IGORRE

# Igorreko alkatea ez zan joan goi-tensinoko linearako desjaubetza aktak sinatzen

Bagilaren 18 eta 19an, Red Electrica Españolakoak (REE) Igorren egon ziran Gueñes-Itsaso goi-tensinoko lineako proiektuan dagozan lurren desjaubetza aktak sinatzeko. Aktak sinatuteko, onuradunak, kasu honetan REEkoak eta alkatea edo udal ordezkariaren bat egon behar dira derrigor. Igorreko Udala proiektu honen kontra dagoanez, alkatea ez zan agertu eta aktak ezin izan ziran sinatu.

### Erredakzioa

Izan be, maiatzaren 20ko plenoan, ez sinatzea eskatzen eban herritar baten mozinoa aurkeztu eta aho batez onartu zan, EH Bilduren 6 boto eta EAJ-PNVren 5 botoakaz. Holan, Udalbatzaren ebatzia betez, alkateak ez eban ezer sinatu.

Garakoi, Garai eta San Kristobaletik pasetan dan goi-tensinoko linearen proiektua epaitegietan dago, bide horrek ez daualako beteten sai zuriaren babeserako Foru Dekretua. Beste bide batetik doan proiektu bat be badago, iparralde-ragotik pasetan dana, Lemoako lurretatik, baina bagilaren 18an eta 19an sinatu beharreko aktak, epaiaren zain dagoan bideari jagokozan lurretako desjaubetzak ziran.

### Hurrengo derrigorra

Oin, aktok sinatzeko Gobernuaren Ordezkariordetzatik deituko dabela azaldu deutso BEGITUri Illart Gumuzio Igorreko alkateak. "Eta horra derrigorrez joan beharko naz, ezpabere funtzinoak bete ez izan-edo leporatuko deuste eta" dino.

Desjaubetzak egin ostean, epaiak, goi-tensinoko linea hortik ezin dala pasau ebatzi ezker, desjaubetzok efektu barik geratuko litzatekez seguruenik.

### Goi-tensinoko linea

Gueñes eta Itsaso arteko goi-

tensinoko lineak 4.000 voltako tensinoa izango dau eta Bizkaiko 17 herritatik pasauko da; tartean, Zeberio, Bedia, Lemoa eta Igorretik. 2011n, hainbat udalek proiektu honen kontrako herritarren alegazioak aurkeztu ebezan. Igorrek proiektua geldituteko edo behintzat, Igorretik pasau ez daiten, aukera guztiak erabili ditu, 50 ekintzatik gora.

2011n aurreproiektuari alegazioak eta alternatibak aurkeztu ziran. Ingurumenari jagokozan alegazioak, etxebizitzai, distantziak, urigintza aldetiko eraginak... Eta eskatu jakon Aldundiari sai zuriaren inguruan txosten bat egiteko. Izan be, inguru horretan sai zuriaren hainbat habia dagoz eta hegazti hori babestuta dago. Sai zuriaren babesaren legea izan da Udalak erabili dauan proiektuaren kontrako tresna nagusia.

Alegazioen erantzuna 2016an heldu zan Udalera.

REEk bide alternatibo bat proposatu eban gero baina Igorreko Udalak jakin eban beste habia bat egoala hasikerako puntuan eta hau be txostenean sartu zan bide alternatibo horren kontra egiteko.

2017an heldu zan Gueñes-Itsaso linearen Baimen Administrazioa eta 2018an, Udalak gora joteko errekursoa aurkeztu eban Baimen Administrazioaren kontra.

## DIMA

# Arratiako Egoitzak 25 urte bete ditu

1994ko maiatzean, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) Arratiako egoitza sortu eban Diman adineko personai zerbitzua emoteko. Hogetabost urte honeetan, egoitza eta Eguneko Zentroa hazi egin dira eta erabiltzaile gehiagori zerbitzu osoagoa eskaintzen deutsee.

### Erredakzioa

Egindako ibilbidea luzea izan arren, Egoitzak etorkizun handia daukala eta beste 25 urterako proiektua dagoala dino Naiara Zamalloa Zubiaurre Egoitzako zuzendari-kudeatzaileak.

Mende laurdena ospatuteko ekitaldia antolatu eban maiatzaren 31n eta han izan ziran Isabel Sanchez Robles, jarduneko Gizarte Ekintzako Foru Diputadua, Miguel Angel Etxebarria Errektoretza Kontseiluko presidentea, Egoitzako erabiltzaileak, senitartekoak eta zentroko profesionalak.

Egoitza, Arratiako Udalen Mankomunitatearen erakunde autonomoa da, eta izaera publiko-privaduko hitzarmena dauka Bizkaiko Foru Aldundiagaz. 60 plaza

daukaz Egoitzan eta 20 plaza Eguneko Zentroan. Lan talde handiak egiten dau behar bertan, "zerbitzu ahalik eta osoena emoteko" zuzendariaren berbetan. Erizainak, laguntzaileak, medikuak, fisioterapeutak, psikologoak, animazionokoak, garbitzaileak, sukaldariak, administratzenokoa, mantenimendukoak eta zuzendaritza egiten dabe behar Egoitzan. Hasikera baten, udalak ipini behar izan baeben dirua be, oin autofinantzau egiten da, Miguel Angel Etxebarria Kontseiluko presidentek adierazotakoaren arabera.

### Programak

2012an Osakidetza saritu ebazan Egoitzaren belaunaldien arteko jarduerak. Dimako eskoleagaz belaunaldien arteko programea dauka

Arratiako Egoitzak. Eskolaumeak Egoitzara joaten dira eta programak sano emaitza onak daukatala ume eta nagusientzat dino Zamalloak. "Loturak sortzean dira, eta oso pozik egoten dira danak alkarregaz".

Udabarrian, furgonetea hartu eta Arratia ezetuteko programa bat daukie. Arratiako herri eta auzuneetara joaten dira bertako jenteagaz egoteko. Egoitzan Arratiako jente asko dagoanez, batez be norberaren herrira joaten diranean, sano pozik egoten dirala dino zuzendariak, gainontzekoai herriko leku eta kontuak azalduen. Holan, gainera, ingurukoakaz kontaktua manteniduten dabe.

Sano egoitza dinamikoa dala dino zuzendariak eta hainbat txango egiten ditue urtean zehar. Udan hondartzara joaten dira, Begoñako basilikara eta Bilboko jaietara. Urrietan Nagusi Azokara eta abenduan Bilbora, barbarako. Ekintza honeek Egoitzak antolatutakoak izan arren, ondo dagoana libre sartu eta urten daitekela dino Zamalloak.

### Edade tarte handia

Momentu honetan, egoitzan dagoan egoiliar gazteenak 51 urte ditu eta 95 urtetik gorako lau persona dagoz, hiru andra eta gizonezko bat. Guztira, 35 andrazko eta 24 gizon dagoz.



25. urteurreneko ekitaldia.

## ZEBERIO

# Baserri bat okupau dau Gazte Asanbladeak

### Erredakzioa

Zubialdetik Ermitabarrira doan bidean dagoan Urkiaga Txikerra baserria okupau dau Zeberioko Gazte Asanbladeak, bertan Gazte-txea egiteko asmoz.

Bagilaren 20an, Asanbladeak laugarren uteurrena ospatu eban eta egun horretan emon eban jakitera baserria okupau dabela.

### Baserria barriztuten

Urkiaga Txikerra baserria nahiko egoera txarrean dago eta gazteak,

eta lagundu gura daben guztiak auzolanean, barriztu eta txukun-

tzeari ekin eutsien urteurrena ospatu eban egunean bertan, baserria Gazte-txe bihurtzeko proiektua martxan ipini ahal izateko. "Herriko jentea eta inguruko herrietako gazteak hurreratu dira. Lan asko dago egiteko baina gogotsu gabilz" azaldu deutse BEGITUri Zeberioko Gazte Asanbladatik.





## ARRATIA

**Hogeta hiru ibilbide barri  
Gorbeia Turismo Jomugaren  
ibilbideen mapan****Erredakzioa**

Bagilaren 14an, Xabier Álvarez de Arkaia Gorbeialdeko Koadrilako presidentek, Gorbeia Turismo Jomugaren ibilbideen mapan 23 ibilbide barri sartu izanaren xehetasunak aurkeztu ebazan. Gorbeia Turismo, senderismoari buruzko Wikiloc plataforma digitaletan atal ofiziala daukan Euskadiko lehenengo destinoa da.

2018an ipini zan martxan, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundien diru-laguntzak dituan proiektuaren bigarren

fasea da hau, "Gorbeia Turismo Bulegoetako erabiltzaileen eskarrietara egokitzeko eta moldatzeko beharretik sortu dana" Gorbeia Turismoren arabera. Ekimenak helburu bi ditu, ibilbide eta bidexka gehiago sartzeko eta asko erabilten ez ziran beste batzuk balioan ipintea.

**Arratiatik 6 ibilbide**

Hogeta hiru ibilbide barri horreetatik, sei Arratia edo Zeberiotik pasetan dira. Honek dira ibilbideok: 12.a, Areatzako uribildua (Areatza); 13.a, Larreder ibilbidea (Areatza); 15.a, Arteako baselizak (Arte);

21.a, Undurragako urtegiko bira (Zeanuri); 22.a, Saldropoko hezegunea (Zeanuri) eta azkena, 23.a Saldariandik San Segismundora (Zeberio).

**"Lagundutako ibilbideak" programa barria**

Gorbeiak ez ohiko beste eskain-

tza bat prestatu dau udarako, Lagundutako ibilbideak izeneko programea, hain zuzen be. Horren barruan, beste batzuen artean, Undurragako urtegiari buelta programata egon da bagilaren 30erako. Ulibarri-Ganboara, Orozko edo Zuiara txangoak be egingo dira udan zehar.



## ARRATIA

**Udan hilean  
behin aterako  
da BEGITU****Erredakzioa**

BEGITU hamabostekariak, 22 zenbaki ateraten ditu urtean, beharginak oporrak hartu ahal izateko. Hau da, garagarilean eta abuztuan, hile bakotxean, zenbaki bakarra kaleratzen da, hile hasikerakoa. Aurten be hola izango da, eta garagarilaren eta abuztuaren hilaren erdiko zenbakirik ez da egongo. Hurrengo zenbakia beraz, abuztuaren 1koa izango da.

Urri lehenengoan, barriro be, hamabostero kaleratuko da BEGITU.

## ARRATIA

**Etxe hurreko jaiak****Erredakzioa**

Garagarilean, Arratiako auzune eta ermita ugaritan ospatzen ditue jaiak. Izan be, santomasak, sankristobalak, santamañeak, sansegismundoak, madalenak, santiagoak, santanak eta saninazioak ospatzen dira oingo hilean eta izenpe horreetako ermiten inguruan ez da faltauko trikitixa soinu edo-eta barauskarrik.

Hilaren 3an, santomasak Area-

tzako Ospitalosten ospatuko dabez 12:00etan mezea eta 20:00etan pariladeagaz. Hilaren 10ean, San Kristobal eguna da eta patriaren jaiak hurrengo astegienean ospatuko dabe aurten Igorreko izen bereko auzunean. Lemoako Tallerreta eta Lemorieta jaiak, hilaren 13an ospatuko ditue, oilasko errea janez, beste gauza batzuen artean.

Garagarilaren erdikaldean, Santa Marina, San Segismundo eta madalenak datoz. Santa Ma-



rina edo Santamañe eguna 18an da eta Dimako Bargondian 20an eta Artean 21ean ospatuko dabe jai hau. San Segismundo eguna, Zeberioko Upo auzunean ospatuten dabe. Maria Madalenaren eguna, hilaren 22an da eta Dimako Lamindaon eta Ubiden jaiak izango dira. Zeanuriko Ipiñaburun Santiago eta Santa Ana egunak ospatuko ditue.

Hilaren atzenengo zatian, Santiago eta San Inazio egunak daukaguz, hilaren 25 eta 31n hurrengo hurrengo. Santiagoak Artean, Diman eta Lemoako Arrañon ospatuko dabez. Arrañon, mezaostean, barauskarria eta azkora erakustaldia egongo dira.

San Inazio Egunean, Lemoako San Inazio plazan ospatuko dabe lemoaztar guztiak. Izan be, Lemoako jaietako egitarauaren barruan dago. Horrezaz gainera, egun honetan Bizkaia osoan Gorbeia igoteko ohitura dago eta jaigiroa ez da faltauko inguruko herri eta auzuneetan. Zeberion be ospatuten ditue jaiak Undurragan.

**San Kristobal (Igorre)**  
**Garagarilak 10, eguaztena**  
12:00etan, mezea. Ondoren barauskarria.

**Garagarilak 12, barikua**  
21:00etan, pariladea.

**Garagarilak 13, zapatua**  
12:00etan, Paella Txapelketea.

13:30ean, Igel Txapelketea.  
15:00etan, paellen aurkezpena.  
17:30ean, Tortilla eta Makailao Txapelketak.  
19:00etan, Ibon magoa.  
19:45ean, tortillen aurkezpena.  
20:15ean, makailao aurkezpena.  
21:00etan, euskal erromeria Kittu taldeagaz eta Arantzategaz jantzak plazan. Ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

**Garagarilak 14, domekea**  
13:00etan, auzo poteoa.

**Tallerreta eta Lemorieta (Lemoa)**

**Garagarilak 13, zapatua**  
12:06an, txupinazoa Zementoko etxeetan eta kalejirean auzunean zehar.  
15:06an, bazkaria: oilasko jana eta bazkaloste girotua.  
19:26an, auzoko piperren eta tortillen aurkezpena.  
20:36an, kontzertua.  
22:36an, oilasko errea.

**Arrañoko jaiak (Lemoa)**  
**Garagarilak 25, eguna**  
11:30ean, umeen jolasak. Eguraldi ona egin ezker, bainujantzi eta txankletakaz joan.  
12:00etan, mezea.  
12:45ean, azkolari erakustaldia eta herri kirolak, ume eta helduentzat. Ondoren, kopaua eta txokolatea umeentzat.  
Goiza musikeagaz girotuta egongo da.

## ARRATIA

**Santa Ageda bezperan  
batutako dirua Caritaseri emon  
deutso Arratiako Koruak****Erredakzioa**

Bagilaren 6an, Arratiako Koruko ordezkariak 2019ko Santa Ageda bezperan batutako dirua entregau eben Bilboko Elizbarrutiko Caritaseri. Aurten, igaz baino diru gehiago batu dau koruak, eta 5.500 euroko txekia emon eutsan irabazi asmo bako erakunde honeri. Caritasek bere Gizartekintza proiektuetarako erabiliko dau dirua.



**Javi Arbe, Arratiako Koruko presidentea, Carlos Bargos, Caritaseko zuzendaria eta Ana Sierrasesumaga, koruko idazkaria.**

## DIMA

**Zinegotzi  
baten kontra  
agertutako  
pintadak  
gaitzetsi ditue  
Udaleko talde  
guztiak****Erredakzioa**

Bagilaren 18an, Dimako fatxada batzuetan Koldo Ausmendi Dime Aukeratu plataformako zinegotziaren kontrako pintadak agertu ziran. Egunean bertan, EH Bilduko Udala taldeko zinegotziak gaitzestu ebezan "mota honetako erasoak".

EAJ-PNVk eta Dime Aukeratu plataformek be pintadak gaitzesteko adierazpen bateratua egin eben hilaren 24an. Jeltzaleak eta plataformakoak be pintadak ekintza biolentotzat jo eta guztiak gaitzesten dabez eta zinegotziari "alkartasuna eta babes osoa" eskaintzen deusie. Gainera, "herritarren ondasunak apurtu edo zikintzen" dabezanak, ez deusie-la "begirune arrastorik erakusten herritarren arteko bizikidetzeari" dinoe.



## LEMOA

# Zea Mays eta Gozategi hilaren 27an Lemoan

Aurten, garagarriaren 26an arrastiko zazpiretan botako dabe txupina jaiak hasikerea emoteko eta, txupinaren ostean, Mozorro Lehiaketan parte hartuko daben guztiak kalejiran joango dira Elizondoraino. Jaiak San Inazio egunean, hilak 31, 20:00ak aldera amaituko dira. Bitartean, ondo pasetako aukera ugari egongo da.

### Erredakzioa

Zea Mays, Gozategi, Tributo M.C.D. eta Liher taldeak, gauetan, kontzertuak emongo dabez. Zapatuko gaua jentetsuena izango dala aurreikusten da. Gau horretan Zea Mays-ek eta Gozategik joko dabe eta Arratiako herrietara bueltetako autobusa egongo da 02:30ean eta 05:00etan. Eraso sexistak prebeniduteko gunea eta alkoholaren arriskuak murrizteko programa ibiltaria be egongo dira gau horretan.

### Garagarriak 24, eguaztena Kirok eguna

**16:30**ean, 15 urtetik beherakoen Futbito Txapelketaren finala Kiroldegian.

**17:30**ean, 15 urtetik gorakoen Futbito Txapelketaren finala Kiroldegian.

**18:30**ean, Esku Pelota Txapelketaren finala beheko frontoian. Partiduak amaitutakoan, kopaua egongo da.

**19:00**etan, Padel eta Frontenis Txapelketen finalak Kiroldegian.

**19:00**etatik **20:00**etara, Mozorro Lehiaketan eta "Rally Umoristikoa" parte hartzeako izen emotea Kiroldegian.

### Garagarriak 26, barikua Mozorro eguna. Gaia: ha-markadak

**18:30**ean, jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan.

**19:00**etan, txupinazoa eta Jaietako Kartel Lehiaketako sari banaketea udaletxeko plazan. Ondoren, Mozorro Lehiaketan parte hartzean daben guztiak kalejiran joango dira Elizondoraino eta bertan izango da mozorroren barlazino eta sari banaketea.



Maite Garciarena da jaietako kartela.

**21:00**etan, kuadrillen afaria kiroldegian, 18 urtetik beherakoen txartelak hilaren 12a baino lehen erosi behar dira udaletxean.

**22:00**etan, disko animazioa kiroldegian.

**23:00**etan, Tributo M.C.D. taldearen kontzertua eta erromeria Urrats taldeagaz.

### Garagarriak 27, zapatua Gastronomía eguna

**11:00**etatik **14:00**etara, Jolas Naturalen Parkea eskolako patioan.

**13:30**etik **14:00**etara, bits Jaia eskolako patioan.

**13:30**ean, Paella, Tortilla, Gisadu eta Marmitako Lehiaketetako lapikoen aurkezpena eskolako patioan. Ondoren, herri bazkaria.

**17:00**etan, Zaztapparrak eta Elkartrukeko gazteak alkarlanean antolatutako tailerrak eta jolasak eskolako patioan.

**17:00**etan, Mus eta Briska Txapelketak kiroldegian.

**19:00**etan, poteo musikatua Sakatu Elektrotxarangeagaz Mailuki tabernatik hasita.

**23:00**etan, Zea Mays eta Gozategi taldeen kontzertuak Elizondon. Goizaldean, mokautxo Elizondon.

\* **20:00**etatik **24:00**etara, Gazteentzako Botiltzar proiektu ibiltaria, alkoholaren arrisku murrizketan oinarritutakoa; **22:00**etatik **02:00**etara, Eraso Sexistatik Ga-

beko Gunea egongo da. Buelto autobusen zerbitzua **02:30**ean eta **05:00**etan izango da Co-reosetik urtenda.

### Garagarriak 28, domekea

**13:00**etan, Lemoako Txirringularien Elkartaren eskutik, 5 urtetik gorakoentzako zinta lasterketea Elizondon. Bakotxak bere bizikletea eta kaskoa eroan behar dauz.

**19:00**etan, jantzaldia Elizondon Lotxo taldeagaz.

**19:30**ean, Tango, Bals eta Pasodoble Lehiaketea Elizondon. Izen-emotea: **19:00**etatik **19:30**era, Txosnagunean.

### Garagarriak 29, astelehena Alkartasun eguna

**18:30**ean, txosnak antolatutako umeentzako ikuskizuna Txosnagunean.

**19:00**etan, Eusko Labela daukan oilasko pintxo dastaketea Elizondon. Pintxoak 1,5 euroko prezioan salduko dira eta batutako dirua Lemoa Harrera Herria taldearentzat izango da.

**20:30**ean, txosnak antolatutako kontzertua Txosnagunean.

### Garagarriak 30, martitena Play-back eguna

**17:00**etan, kuadrillen arteko "Rally Umoristikoa" udaletxeko plazan hasita.

**22:00**etan, Ume eta Nagusien Play-back Lehiaketea Elizondon. Izena **16:30**etik **17:00**etara emon Mailuki tabernan.

**23:30**ean, Liher taldearen kontzertua eta erromeria Oxabi taldeagaz.

### Garagarriak 31, eguaztena Euskal Jaia San Inazio plazan

**11:30**ean, XXII. Artisautza Azokea Atxeta taberna ondoko plazan.

**12:00**etan, mezea San Inazio baseleizan. Meza ostean, Durundibarri Dantza Taldeko ekitaldia San Inazio plazan.

**18:00**etan, Xaiborren ikuskizun barria *15 urte dantzari* San Inazio plazan.

**18:00**etan, Igel Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

**18:30**ean, Igel Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

**19:00**etan, Bola Joko Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

**19:30**ean, Bola Joko Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

Sari banaketa ostean, zozketea. **20:00**etan, Garsu erre San Inazio plazan.

\* Egunean zehar, baserritar jantzita doazenai plazan taloa eskuratzeko txartela emongo jakie. Txartelak **13:00**etatik **14:00**etara eta **19:00**etatik **20:00**etara bananduko dira.

## ARRATIA

# Metaleko grebak erantzun handia izan dau Arratian

### Erredakzioa

Bizkaiko metalgintzako beharginak greba egin dabe maiatzeko eta bagileko bost egunetan. Bagilaren 20 eta 21a izan ziran atzenak.

LAB sindikatuaren arabera, "grebaren jarraipena Arratian oso arrakastatsua izan da. Gure kalkuluen arabera, nahiz eta datu guztiak ez izan, %80 ingurukoa izan da. Enpresa oso garrantzitsuak zarratu egin dabe: Ormazabal, Tecnichapa, TMC, Fondello... zerranda luzea".

### Sindikatuak deialdi bateratua

Lan-ixteak hasi arte, hogeitatu bider bildu egin ziran sindikatu eta patronalak Bizkaiko metaleko ituna negoziatuko, emaitza onik lortu barik. Horregaitik, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak, eskariak bateratu eta mobilizazio agenda be bateratu egin eben. Holan, bost greba egunerako deialdia egin eben; maiatzaren 23a izan zan lehen greba eguna eta bagilaren 21a atzena.

Bagilaren 6, 20, eta 21eko greba egunetan istiluak egon ziran beharginen eta Ertzaintzaren artean Bizkaian. Batez be beharginak pikete lanetan ebilzanean hainbat industriagunetan gertatu ziran istiluak. Bagilaren 6an, Zornotzan eta Ermuan izan ziran. Laugarren greba egunean be, bagilak 20, goizeko 08:30ean hasi ziran istiluak Zornotzako industrialde baten. Grebalariai barrikadak egin ebezan pneumatikoakaz eta su emon. Hurrengo egunean be, tensino handia egon zan mobilizazioetan. Bilboko manifestazioetan, partaide bat atxilotu eban Ertzaintzak.



**Jai batzordeak eta Lemoako Udalak**

*Gora San Inazioak!*

**JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ**




## IPUIN EROTIKOEN LEHIAKETEA

# Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketeta martxan

Aurton Zertu Kultur Elkartek, Igorreko Udalaren laguntzeagaz Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketeta martxan ipiniko dau. Lehiaketek Basauri eta Dimako ipuin erotikoen lehiaketen oinorde eta segidea izan gura dau. Lanak zemendiaren 15era arte bialdu ahal izango dira.

emotea. Literatura erotikoen mugak gaintuz erotismoa bera bestelango lanetara be zabaldu da, nabarmen-nabarmen gaur egungo idazle andrazkoen literatura ikusi daitegun moduan.



Estankona, Julen Gabiria, Alvaro Rabelli, Rafa Ugalde, Janire Lopez, Zefe Ziarrusta eta Maite Arrizabalaga lan erotikoen egileak doguz. Horreetako batzuk aspaldi pasa ziran Basauriko Euskarabila alkarteak 1996. urtetik 2012ra arte antolatutako Ipuin Erotikoen Lehiaketatik.

Urte horreetan, hain zuzen be, Igor Estakona, Julen Gabiria, Alvaro Rabelli, Rafa Ugalde eta Janire Lopez ipuinak sariak jaso ebezan aitaturako lehiaketan. Gaur Txalaparta argitaletxeak eginiko hainbat bildumatan topau geinkez euren ipuinak, *Bero hezeak* (2001), *Basa gurina* (2006) eta *Esku hori!* (2012) bildumetan hain zuzen be. Rafa Ugalderen *Relax* (2007) bildumea be ezin dogu aitzu. Beste batzuk, Zefe Ziarrusta eta Maite Arrizabalagaren lanak, oindino argitaratubakoak, atzen urteetan Diman antolatutako Dimako Kalenturak Lehiaketari jagokoz.

## Nabarmentzekoa Rafa Ugalde dimoztarrak egindako zubilana

Ipuin erotikoak idazle honeetako batzuen ibilbidean anekdotikoak izan arren, batzuentzat lehenengo lanak izan dira, horreekaz urten dabe euskal literaturearen plazara; eta ez honeek bakarrik, ugari dira gaur ezagunak diran euskal idazle gazteak horreetatik pasa izan diranak, lehiaketok euki daben arrakastea eta eraginaren seinale. Halanda be, bai Basauriko lehiaketek, bai Dimakoak euren onenak emon ebezan as-

paldi.

## Atzen urteotan ez da Euskal Herri osoan genero hau kontuan hartu dauan lehiaketarik egon

Horregaitik, Zertu Kultur Elkartek beste ahalegin bat egin gura dau ipuin erotikoen lehiaketari eusteko, aurton, esan lez, Igorreko Udalaren laguntzeagaz; eta aurrerantzean, aukerea egon ezke-ro, Arratiako beste udal batzuek batera auzolanen.

## Zergaitik erotikoa?

Belaunaldi bakotzak bere sexualitatearen irudia deskubriduteko jarkerea eukiten dau. Izan be, literatura erotikoa helburu estetikoak eukiteaz gainera -literatura guztiak daukan lez- sexu irakaspenera be emon gura izan dau. Jendartearen sexu portaera eta fantasien erakuslea da. Areago, jendarteak sexuagaz zer hartu-emon daukan behin eta barrero erakusten deusku.

Literatura erotikoa literatura bera bezain zaharra da. Beti euki izan dogu sensualidadea, amodioa eta barruko sentimentu guztiak islatzeko beharizana.

Zertu seguru dago antolatu izan diran ipuin lehiaketa guztiak, generoaren garapenera ez eze, irakurle eta idazle barriak be ekarri dabezala gure euskal literaturara. Euskal literatureari ekarpen handia egin izan deusie. Generoaren bilakaera be agerikoa da. Gaur erotismoaren agerpen hutsetik harago, nagusi da sexu-generoaren gaineko ikuspuntua

## Zelango lehiaketeta

Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketeta ez dogu bakarrik gure eskualdean lotu daiten gura, berenberegi bertoko literaturazaleak parte hartzean animetan badoguz be, Euskal Herri osorako lehiaketeta izatea gura dogu. Horretarako, batetik, ezinbestekoa da sari dezentekoak emotea eta, bestetik, prestigioa emongo deusian literatura munduko lagun ezagunak osotutako epaimahaia izatea, eta beharbada garrantzitsuen, ondoren, saridun suertautako ipuinak argitalpenak egiteko ahalegin berezia egitea.

## Arratiako Kalenturak izena Diman egin zan lehiaketari gorazarre eginez hartuta

Zertu Kultur Elkartearantzat be erronka garrantzitsua izango da lehiaketa hau antolatzera, beste aurrerapausu bat. Lehiaketa honen bidez argi dago zer lortu gura dogun: Euskal Herria osoan eta Arratian literatura zaletasuna bultzatzeko beste tresna bat gehiago eskaintzea; egile gazteak edota hasibarra hasteko plazea eskaintzea; gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea; berbakera erotiko-afektiboa euskeraz lantzea, eta atenez, genero erotikoen inguruko ikuspegi zabalak emotea.

Lanak bialtzeko epea zabalik dago, zemendiaren 15era arte, eta sari banaketea aurten Gabon inguruan izango da ekitaldi batez batera Igorreko Kultur Etxean.

Alvaro Rabelli

ez, begi kolpe baten konturatzen gara asko izan dirala ipuin erotikoen lehiaketetatik pasa izan diran arratiarrak edo-eta oin diran Arratiako bizilagunak. Holan, Igor

## Zergaitik Arratian

Aurreko beste baten esaten genduan lez, kasualidadea izan ala

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**DIPLINA ANITZEKO ZENTRUA**  
• Psikologia  
• Logopedia  
• Fisioterapia  
• Ulermen tailerra  
• Jarrera arazoak  
• Emozioen tailerra  
• Psikomotrizitate  
• Adimen emozionala  
• Trebetasun sozialak  
• Estimulazio goiztiarra  
• Eta askoz gehiago...  
652 702 650 / 672 481 370  
Lehendakari Agirre 4 · Igorre  
maite.eileke@gmail.com

**Kili-Kili**  
Ampa eta Puntuko  
Lehendakari Agirre 10 · IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 63 81

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK  
Elexalde, 33 D - 1ºB · 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 621 64 62 - 908 864 018

**izkaifisios**  
IGORRE  
FISIOTERAPIA  
ZENTROA  
Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 35 08  
igorre@bizkaifisios.com  
ANDRA MARI  
KLINKEA  
Pontzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
galdakao@bizkaifisios.com



## Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketa

### Zertu Kultur Elkarte. Oinarriak

- 1- Lehiaketa honetan hamasei urtetik gorako edozein personak hartu leike parte.
- 2- Lan guztiak argitaratu bakoak eta euskeraz idatziak izan beharko dira.
- 3- Lanak ipuin erotikoak izan behar dira eta DIN A4 orrietan makinaz tarte bikotxean idatzita aurkeztu beharko dira. Lanen luzeerea lau eta zortzi orrialde artekoa izan beharko da.
- 4- Lanean ez da egilearen daturik ipiniko, izenburua bakarrik. Egilearen datuak (Izen-abizenak, adina, telefonoa, helbidea eta lanaren izenburua) gutunazal zarratu baten sartuko dira eta gutunazal horren azalean lanean ipini dan izenburu bera ipini beharko da.
- 5- Lan orijinala, hiru kopia, eta egilearen datuak dituan gutunazala beste gutunazal handiago baten sartuta, honako helbide honetara bialdu beharko da: Zertu Kultur Elkarte, Herriko Plaza 24, 48142 Artea (Bizkaia). Posta elektronikoz bialdu ezkeru, gehitu artxibo bi, bat lanerako, bestea datuetarako, eta bialdu helbide honetara: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com).
- 6- Hiru sari emongo dira: lehena 600 eurokoa, bigarrena 400 eurokoa eta Arratiako onenari, 250 eurokoa.
- 7- Lanak bialduteko azken eguna 2019ko zemendiaren 15a da.
- 8- Zertu alkarreak izentauko dau epaimahaia literatura munduko kideakaz.
- 9- Sari emotea irabazleak bertan dirala egingo da. Non eta noz izango dan aurrez iragarriko da.
- 10- Lan saridunak Zertu alkarrearen esku lotuko dira eta osorik zein zatika argitaratzeko aukerea eukiko dau, beti egilea nor dan garbi adierazoz.
- 11- Zertu alkarreak oinarri honeei edozein aldaketa egiteko aukerea eukiko dau, beti publikoki adierazoz.



**belagorri**

mediku naturalista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elikagai biologikoak  
zelakoentzat elikagaiak  
esteziana

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

**BICIS CAS**  
*Arratiarron dendea*

JESUS CANAS TARAVILLO  
Tel. 94 630 92 20  
jscanas@movistar.es  
Gregorio Mendibil kalea, 12

**BICIS BIZI**  
www.bicisamorebieta.com • AMOREBIETA-ETXANO

**Orde**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 7.  
48140 Igorre (Bizkaia) Telefonoa: 94 673 64 25

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIDAK, NEUMATIKOAK ETA TERBITZUAK

Garbi, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**NAIARA** Horts Klinika

Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**Abel Lapatza Iza**  
Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima

946 317 252  
608 287 249

Arratiako Herri Ikastetxeak

**Gure**  
ikastetxeak  
Euskaralduna  
kalidazkoa  
herrikoia

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre





[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

Jubiletan  
nazelako  
**GALANTA**  
lentzeria  
traspasetan dot.

Gura dozu  
zuk hartu?

Tel. 94 631 90 08  
Agirre Lehendakaria 23  
Igorre

## FITNESS

# Ekhi Ladislao eta Dani Garcia: "Dopinaren kontrako kontrolak dagozan txapelketetan bakarrik parte hartzean saiatzen gara"

### Erredakzioa

Ekhi Ladislao Dimakoa eta Dani Garcia Igorrekoa Best Protein fitness taldeko kideak dira. Oin dala pare bat urte hasi ziran gimnasioan gorputza landuten eta aurten, txapelketetan. Sano ondo hasi gainera, izan be, Gernikan maiatzean jokaturako Euskadiko Challengean bigarren egin eban Ladislao eta laugarren Garcia.

Toni Campaña entrenadoreagaz Igorren eta Bilbon entrenetan dabe. Kirol gogorra dala dinoe, "goi errendimenduko, oso gogorra, exijentzia handikoa. Dietea sano inportantea edo inportanteena da" dino Ladislao. "Normalean, sei jatordu egiten doguz, eta ordu bi entrenamentuetan" gehitu dau Garcia.

Gimnasioan indarra landuten dabe batez be eta dieteari jagokonean, nahiz eta momentu bakotxean dieta eta entrenamentu zehatz batzuk egin behar izaten da-



Dani Garcia eta Ekhi Ladislao.

bezan, proteina askodun jatekoak jaten dabez, "oilaskoa, okelea...".

### Gorputz klasikoa

Arratiar biak dinoe beti izan dabela gustuko gorputz indartsuak eta superheroiak izan dituela idolotzat. Horregaitik hasi ziral kirol honetan. Ha-ta guzti be, Classic Physique da euren modalidadea, gorputz klasikoa. "Kategoria hau oin dala hiru bat urte sortu zan, eta gorputz

estetiko eta indartsuak bilatzen ditu, 1980ko hamarkadan legez. Ze oin kulturistak oso-osoa handiak dira" azaldu deutso begituri Ladislao. "Gu naturalak gara, anabolizante bakoak" dino Garcia. Eta euren entrenatzailak dopinaren kontrako kontrolak daukiezan txapelketak bilatzen dituela dinoe. "Dopatzan diranen kontra ez daukagu aukerarik, muskulu oso handiak ditue eta. Zentzu horretan, mundu hau apur bat iluna da".

## MENDIA

# Egun biko ibilbidea hileon Zeanuriko mugetatik zehar

### Erredakzioa

Garagarilaren 20 eta 21erako antolatu dabe Zeanuriko Mugen II. Ibilaldia. Lehenengo egunean, 28 bat kilometro egingo dabez partaideak;

bigarren, 21 kilometro inguru eta Bizkaiko Federazioaren Arrabako aterpean egingo dabe lo.

Ibilbideari jagokonean, lehenengo egunean Ubidetik urten eta Barazar, Makztui, San Blas, Asteria, Uribe,

Karkabitxueta, Pagomakurre eta Le-kandatik pasata aterpean amaituko dabe. Bigarren, aterpetik, Zaztegi, Gorbeia, Erreka Siku eta Ubidera joango dira.

### Izen emotea

Izena garagarilaren 8a baino lehen emon behar da udaletxean. Prezioa 25 euro ingurukoa izango da loa, afaria eta gosaria barne. Horetan bost lagunentzako lekua dago.

Arratia  
Ubide eta zeberrioko  
euskerea  
eta kulturearen alde

Hamabostero  
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateralako produktuak.  
Hamabostean behin sari izelen zozketan parte hartuko dozu.

Hamabostean behin sari izelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkartea  
Berrao Plaza 21. 48112 Arratia

Izen-abizenak:  
Ibilbidea:  
Iturria:  
Telefonoa:  
E-posta:  
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

**begitu**  
magazine online edition



## AZKOREA

# Irati Astondoa Euskal Herriko txapeldunorde

### Erredakzioa

Emakumezkoen Euskal Herriko Aizkora Txapelketako finala Mungian jokatu zuen bagilaren 30ean. Nerea Sorondok lortu eban txapela 17' 03" denporeagaz; Astondoak segundo gitxi batzuk gehiago behar izan ebazan beharra amaituteko eta bigarren egin eban, 17' 39"ko denporeagaz. Hirugarrena Maika Aristegi izan zuen, 19' 40" gaz.

Azkolariak 36 ontzako enbor bi, 45 ontzako beste bi eta kanaerdiko bat ebagi behar izan ebazan. Hasikeran hirurak parean

ibili ziran, Sorondo, Ariztegi eta Astondoa, hurrenez hurren. Baina, kanaerdikoan Astondoak nagusitasuna erakutsi eban, lehenengo joian Sorondo sano estutu eban eta Ariztegi aurrea hartu eutsan. Hirugarren enborra zuen kanaerdiko horretatik aurrera tensinoa handitu egin zuen Sorondo eta Astondoaren artean. Atzenean, Sorondo izan zuen txapeldun.

Inozko denporarik onena lortu eban Zeanurikoak. Horregaitik, txapela hortxe euki ebala jakiteak penea emon baeutsan be, benetan pozik sentidu zuen egin eban beharragaz.



Irati Astondoa.

Argazkia: Irati Urien.

## PELOTEA

# Bizkaiko Herriarteko Txapelketako finala Zeanurin jokatu zuen eta etxeakoak irabazi

### Erredakzioa

Bagilaren 28an jokatu zuen Zeanuriko frontoian L. Bizkaiko Herriarteko Txapelketako finala, Orozko eta Zeanuri artean. Zeanuri zuen faboritua eta ez eban kale egin; 3-0 irabazi eban, maila guztie-

tako partiduak irabazita.

Kadeteak izan ziran lehenak jokotzen. Anton Erkiagak eta Danel Beitiak 22-3 irabazi eutseen Orozkoko Uriarte eta Latorreri.

Hurrengo partidua, Gazte mailakoa, ez eban euki hain erraz irabazteko etxeakoak. Ha-ta guzti be,

Beñat Etxeita eta Imanol Urigoitia Joko Alaiko pelotariak, Solatxi eta Narbaizari nagusitu jakien 22-15.

Bi partidu horreek irabazita, Herriartekoa irabazita eukan Zeanuriko taldeak eta hirugarren partiduak, Nagusi mailakoak, lehenengoaren antzeko emaitza itxi eban, 22-4.

### Finalera tanteoari esker

Finala 3-0 irabazi arren, sailkatzea ez zuen hain erraza izan. Izan be, Final laurdenetan, Munitibarregaz hiruna bardinduta, tanteoari esker sailkatu ziran finalerdietara eta finalerdietan be bardin pasatu ziran. Zornotzagaz hiruna bardindu eta tanteoari esker finalera sailkatu ziran. Dana dala, bietan, seigarren partidua jokatu orduko baekien hurrengo faserako sailkatura egozala.

### Taldea

Herriartekoa Joko Alaiko bederratzi pelotarik jokatu dabe; Kadete mailako hiruk, Gazte mailako beste hiruk eta hiru Nagusik. Honiek izan dira: Danel Beitia, Maren Emaldi, Anton Erkiaga, Lander Erkiaga, Beñat Etxeita, Imanol Urigoitia, Aimar Atutxa, Mikel Beldarrain eta Beñat Mendia.

Irabazi ahal izateko taldea izan dala inportanteena azaldu deutso BEGITURI Luis Angel Erkiagak, Joko Alaiko presidentek. "Herriarteko honetan, lesinoak izan dira trabarik handiena, eta ondo kostata irabazi dogu. Ekipo osoa izan da inportantea, inoz baino gehiago".

Txapelketea maiatzaren 5ean hasi zuen eta hogeta lau herrik hartu dabe parte.



Imanol Urigoitia, Iñigo Atutxa, Beñat Etxeita, Mikel Beldarrain, Aimar Atutxa eta Luis Angel Erkiaga; makurtuta, Beñat Mendia, Anton Erkiaga, Danel Beitia, Lander Erkiaga eta Maren Emaldi. Argazkiak: Mikel Isusi.

## ZURE ZERBITZURA

Avia guztira 192 gasolindegia  
Avia Adenor 35 gasolindegia

ADENOR Igorre  
[www.aviaenergias.es](http://www.aviaenergias.es)

Explanada Punta Ceballos z/g  
48508 Zierbena (Bizkaia)  
Tel. +34 944 130 159

**Banaketa  
Berogailuetarako  
gasolio zerbitzua**



## GURE BIHOTZA

Operazio zentroa  
Bilboko Portu Autonomoan





## JANTZEA

## Ekuador eta Uzbekistango jantza taldeak Areatzan

## Erredakzioa

Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantza Taldeak antolatuta, atzen lau urteotan Areatzara ekarri dau Folklore Bizian jaialdia Udalak. Jaialdia nazinoarteko kultura topaketea da eta munduko hainbat jantza eta musika talde etorten dira Euskal Herrira euren ondarea eta ohiturak ezetu dagiguzan.

Andra Mari Eusko Dantzari Taldea 1955ean sortu zan eta 1970eko hamarkadan, Euskal Herriko musika eta jantza zaharren ikerketa, ikasketa eta berreskuratze lanari ekin eutsan.

Aurten, Ekuadorreko Ensemble Folklorique Somos Cultura Viva eta Uzbekistaneko Ensemble Folklorique National Sabo taldeak izango dira Andra Mari taldeagaz batera. Euren musika eta jantza batzuk ezetuteko aukerea egongo da Areatzan garagarilaren 20an. Jantza taldeak, 20:00etan hasiko dabe desfilea eta 20:30ean egingo dabe jantza erakustaldia plazan.

## Munduko lurralde biko folklorea

Hamasei urte dira Somos Cultura Viva taldea sortu zanetik eta urte honeetan, lortu dau gazteak identifikauta sentidutea Ekuadorreko kulturearen balioagaz. Horretarako, tailerrak, mintegiak, aurkezpenak eta nazinoarteko jaialdietan parte hartzeaz baliatu da. Bakearen kultura lortzeako helburuagaz, nortasun desbardinak onartuz, gazteen arteko alkarrizketa interkulturealean sakontzen dau. Taldekoen ustez, jantzea horretarako erremintetako bat da.

Uzbekistango lurraldea, Europa eta Txina batzean eban sedaren ibilibide nagusien topagunea zan eta Uzbekistango jentek lurralde askotako hartu-emon komertzialak izaten ebazan. Musikeari jagokonean, musika mota bi desbardinuten dabez: bizitza sozialeko momentu jakin batzuetarako egiten dana eta bat-batekoa. Ezagunak dira *kochouk* izeneko koplak, egunerokotasuna eta herriko barriak kontetan dabezanak.

## HEZKUNTZA

## Dimako Eskoleak ingurumenagazko jasangarria dala ziurtatu dau 12 urtez



## Erredakzioa

Dimako Ugarana eskoleak Eskola Jasangarria Ziurtagiria hirugarrenez jaso dau eta Ziurtagiriak lau urteko baliagarritasuna dauka. Hau lortzeako kanpoko auditoretza zorrotza gairiditu behar da eta eskoleak ingurumenagaz daukan konpromisoa benetakoa dala adierazoten dau.

2018-2019 ikurturean, Stop Plastikoa! izan zan eskolako Agenda 21ek aurrera eroandako programea. Diman, urrietan abiatu eben programea, habitat egunean, eta ikasturte osoan zehar hainbat ekintza egin dabe, ez bakarrik konzienziatzean eragiteko, baita konpromisoak hartu eta horreek gauzatzeko be.

Ingurumenagazko eskoleak hartzean dauzan konpromisoak urtero berresten dira habitat egunean. "Konpromisoak ipinita daukaguz: birziklatzea dala, energia kontsumoa murriztea dala... Batzuk danon artean pentsautakoak dira eta gero zerrenda horreek berresten dira egun horretan, Agenda 21eko ekintzai hasikerea emonez" azaldu deutso BEGURI Olaia Gurtubai

Ugarana ikastetxeko zuzendariak.

Baina jasangarritasunaren aldeko eragina ez da eskolan bakarrik geratuten, hezkuntza komunitatera eta Udalera be zabaldu egiten da. "Eskolan ekintza piloa egiten doguz eta gero, Agenda 21en dagozan beste ikastetxeakaz komunean ipinten doguz. Ostean, Udalar hartutako konpromisoen barri emoten deutsegu eta gauzak eskatzen doguz" dino Ana Musatadi Dimako eskolako Agenda 21eko arduradunak.

Umeen gurasoak inpliketan be saiatzen dira irakasleak.

## Ikasturtean zeharreko proiektuak

Jasangarritasunagazko konpromisoak beteteko hainbat proiektu daukiez ikastetxean. Jolasorduan umeak frutea jaten dabe, eta fruta azalakaz konposta egiten dabe. Ortu be badaukie eskolan, eta han erabilten dabe konpostaren zati bat. Ortuaren batutakoa eskolaumeen artean bananduten da. Ikasturte hasieran, Joseba Rekondo egon zan eskolan ortuariak noz landatu eta zelan erein azalduten. Ortuaren ardurea lau-

garren mailakoena da.

Fruta-arbolak be jagoten dabez Ugaranako ikasleak. Izan be, eskolatik hur, herrikoa dan landa bat dago fruta-arbolakaz, eta Udalak proposatu eutsan eskoleari ha jagoteko ardurea hartzea. Holan egin dabe, eta hirugarren mailakoak izan dira landa jagon eta arbolak osasuntsu izateko proiektua aurrera eroan dabenak.

Errekeari jagokonean, herriko hainbat adituren laguntzeagaz (biologoa, kimikoa, eta abar) Indusi errekearen egoerearen azterketa sakona egin dabe. Uraren kalidatea be neurtu egin dabe eta emaitzen zain dagoz.

## Agenda 21

Dimako eskolea, Igorreko Inazio Zubizarreta Ikastetxea eta Igorreko Arratia Institutua dagoz Agenda 21en. Agenda 21 ikastetxearen jasangarritasunerako eta kalidaderako hezkuntza programa bat da. Komunitadearen partaideztan oinarritzen da, eta udalerriko garapen jasangarrian esku hartu eta laguntzen dau. Ingurumen hezkuntza programa bat danez, ingurumen arazoaren konponbidean parte hartzeako ezaguera, gaitasuna, jarkerea, motibazioa eta konpromisoa garatzea dauka helburu. Ikasturte baktexean, gai edo arazo baten inguruan gartzen da. Pasa dan ikasturtean, plastikoen erabilera murriztu beharra izan da gaia eta datorren kursoan ekonomia zirkularra izango da.

Kanpoko auditoretza baten bidez frogatu behar dau ikastetxeak euren baliabideen kudeaketea eta hezkuntza komunitadearen parte hartzeako bideak jasangarritasunagaz bat datozala Ziurtagiria lortuteko.



Uzbekistaneko Ensemble Folklorique National Sabo taldea.

## LEHIAKETEA

## Areatzako Jaietako Kartel Lehiaketea

go testua: Areatzako jaiak 2019 Abuztuaren 23tik 31ra. Kartelak formatu digitalean eta A4 papelean aurkeztuko dira.

Ebatzia hilaren 15an emongo dau jakitera epaimahaiak.



## Erredakzioa

Areatzako Jai Batzordeak Jaietako Kartel Lehiaketea antolatu dau. Proiektuak garagarilaren 12ra arte aurkeztu daitezke udalderetxeen. Kartel irabazleak iragarriko dauz Areatzako jaiak eta jai egitarauaren liburuxkan be argitaratuko da. Saria 150 eurokoa da. Kartelak 60/40 cm formatuan aurkeztu behar dira. Edozein teknika erabili daiteke baina derrigorrez agertu behar da hurren-

## AUZOLANDEGIAK

## Lemoatxeko guda zelaia errekuperetan jarraituko dabe

## Erredakzioa

Oingo udan zazpigarrenez, 1937ko Lemoatxeko batailako lubakiak lehengoratu eta mantenduteko lanak egiteko, Auzolandegiak antolatu ditu Lemoako Udalak. Txanda bi izango dira; lehenengo taldeak garagarilaren 15etik 28ra egingo dau behar, eta bigarrenak garagarilaren 29tik abuztuaren 12ra arte.

Lehenengo Auzolandegia

Aranzadigaz batera antolatutako arkeologia kanpaina izango da. Kasu honetan, Aranzadiko arkeologo eta boluntarioak egingo dabe indusketea. Bigarren ordea, Aranzadiko arkeologo batek zuzenduko dau, baina mundu guztitik etorritako gazteak izango dira boluntario lanetan jardungo dabenak.

Lemoatx, Gerra Zibilari jagokonean, Euskal Herrian dagoan aztertategirik garrantzitsuena da.





## BERTSOLARITZEA

# Amaiur Atxa Zubero bat-bateko Eskolarteko Bertso Txapelketako finalista izan da eta Izaro Mazo Zuloaga bertso idatzietako txapelduna

Amaiur Atxak 17 urte ditu eta Batxilerreko bigarren mailan ikasiko dau datorren ikasturtean, Izaro Mazok barriz, DBHko laugarren maila egingo dau.

### Rakel Aldekoa Diez

Atxak Eskolarteko Bertso Txapelketako finalean kantau eban Abadiñon, maiatzaren 24ean, 18 urte baino gixiagoko beste 7 finalistaren kontra. Mazok, Bizkaia osoko DBH 3., 4. eta Batxilerreko kategorian idatziko lehenengo saria irabazi dau.

### Zelan joan ziran kanporaketak eta finala?

**A.A.:** Kanporaketa bat pasau behar izan neban. Bakotzak kantetan eban kanporaketa baten eta kanporaketa bakotzeko irabazlea finalera pasetan zan, baina nik ez neban nire kanporaketea irabazi. Lau irabazleak pasetan dira eta Bizkaia osoan puntu gehien daukiezan beste lau. Ni lau horreetako bat izan nintzan.

**I.M.:** Guri finaleko egun berean, gure kategoriaren arabera sailkatu eta orri bat emon euskuen hiru ariketaz. Bat zan, lau oinak emonda, hau da errimak emonda bertsoa egitea. Beste ariketa baten, berba baten inguruan egin behar

zan bertsoa, eta azken ariketan, marrazki bat agertzen zan papelean eta marrazki horren inguruko bertsoa egin behar zan. Marrazkia, Igor Menikak egindakoa zan. Bizkaia osoko DBHko hirugarren, laugarren mailako eta Batxilergoko ikasleakaz neurtu nintzan.

### Zelan prepartetan zarie?

**A.A.:** Ni astean behin bertso eskolara joaten naz. Igorreko Gazte-txean egiten dogu. Institutuan be badago baina maila batera heldu arte. 6-7 persona egoten gara. Finalerako eta txapelketetako ariketak landuten doguz. Gai bat ipini eta bertsoan jarduten dogu gure artean. Irakaslea Illart Gumuzio da eta berak ipinten deuskuz gaiak normalean. Batzuetan guk be bai. Banaka edo binaka ibiltzen gara.

**I.M.:** Institutuan bertso eskolak daukaguz Juango Respaldizagaz eta hor gagoz lauzpabost. Amaiurregaz be egoten naz bat-bateko taldean, Illartegaz. Nik uste dot idatziko bertsoak batez be Juanjogaz landu dodazala bertso eskolan.

### Bertsolaritzeak ze leku dauka

### zuen bizitzan? Jarraitzeko asmorik? Noraino gura dozue heldu?

**A.A.:** Bertsolaritzea oingoz eskolaz kanpoko jardura bat baino ez da. Ez dakit... praktikoa da eta gustetan jata baina eskolaz kanpoko moduan hartzean dot. Jarraitzeko asmoa badaukat baina ez dot uste luzerako izango danik. *Hobbie* moduan hartzean dot. Hizkuntzeagaz lotuta dagoan zeozer diferentia egiteko modu polit bat da.

**I.M.:** Nire bizitzan be *hobbie* moduan edo eskolaz kanpoko jardura moduan, baina batzuetan eskolaz kanpoko ordutegitik ateraten da; ez dakit zein herritan bertso saio bat dagoalako, barbarako. Urtean zehar bertso bartenetegi bi egoten dira eta bertso udaleku batzuk be bai. Aurten lau egun egongo gara Ondarroan beste Bizkaiko bertsolari gazteakaz. Niretzat bigarren urtea izango da. Urte batzuk gehiago segiduko dot baina ez dot neure burua ikusten luzaroan bertsoan.

### Zergaitik ikasi bertsoan? Ze papel daukie bizimodu mo-

### dernoan?

**A.A.:** Nik uste dot bertsoan ikasteak hizkuntza hobetuten lagunduten dauala. Hasten zaranean errimak pentsetan edo metrikea edo... hizkuntza egokia erabili behar dozu eta horregaz lantzean da apur bat zelari idatzi, zelari egin berba eta euskerea hobetuten da holan. Edo behintzat euskeraz egokiago berba egitea errazten dau.

**I.M.:** Bertsolaritzea gure kulturearen parte garrantzitsua da. Nire ustez, gainera, bertsolaritzeak zure esperientzia personalean be eragin handia izaten dau, izan be, zeure

buruagaz konfiantza hartzean dozu eta lagunak egiten dozuz.

Arratian Regueibertso izeneko proiektu bat dago, institutuan. Alkartrukea egiten da Galizako ikasle batzukaz. Igaz Kataluniako ikasle batzukaz be egin zan eta Euskal Herrikoakaz. Leku bakotzak bere inprobisazio modua dauka. Galizian da *regueifa*, Katalunian *glosa*. Aurten laugarren urtea izan da eta Bartzelonara joan gara. Normalean Santiagora joan izan gara. Hango ikasleak ezetuten doguz, hango doinuak ikasi, hango metrikea... eta sano ondo pasetan dogu.



Amaiur Atxa eta Izaro Mazo billaroztarrak.

## DUNBA

# Albert Einstein Gymnasium eta Arratia BHIren arteko alkartrukea

Bagilaren 23tik garagarriaren 2ra bitartean Arratia BHIko ikasleak Alemaniara abiatuko dira, Ulm uriburura, hain zuzen. Bertan zortzi egunez, Albert Einstein Gymnasium-eko ikasleakaz esperientziak eta bizipenak trukatzeko aukera parebakoa izateaz gainera, eskualde horretako leku esanguratsuenak ezetu ahal izango ditue.

### Arratia BHI Institutua

### Zertan datza alkartrukea?

Alkartrukea fase bitan bananduko da. Lehenengo fasean Arratia BHIko 19 ikasle eta irakasle bi joango dira Alemaniara eta bigarren fasean Albert Einstein Gymnasium-eko ikasleak gurera etorriko dira hasitako trukeari amaierara emoteko.

### Noz egingo da?

Arratiako ikasleak bagilaren 23tik garagarriaren 2ra joango dira Ulm uriburura eta Albert Einstein Gymnasium-eko ikasleak urri le-

henengoaren 18tik 27ra etorriko dira gurera, gure institutuko ikasleakaz bizipenak partekatzeko. Esan beharra dago Ulm uriburuan Albert Einstein fisikaria jaiotako zala eta horrez gainera, bertan mungido katedralik altuena dagoala.

### Zer bisitauko dabe?

Hasteko, gure ikasleak Ulm uriburua kokatzen dan eskualdeko leku esanguratsuenetan murgilduko dira. Hori esanda, bisitauko dituen uriburuarik jagokienez, honeexek izango dira: Ulm, Munich, Stuttgart eta Lindau uria (urri honen bisitea eguraldiak baldin-

tzatuko dau).

Baina ez hori bakarrik inguruko natur baliabide eta txoko interresgarriak ikusteko aukerea be

izango dabe. Besteak beste, Isar ibaian bainu bat hartuko dabe eta Constanza lakura txangoa egingo dabe.

Kultur alorrari jagokonez hainbat museo ikusi ahal izango ditue. Daimler museoan zehar ibiliko dira, Gallerie Weishaupt-en dagozan obrakaz gozatuko dabe, Neuschwanstein gaztelura joango dira, Zeppelin museora bisita egingo dabe eta Wiblingen monasterioan murgilduko dira.

Horrez gainera, ikasleak bertako hizkuntza eta ingelesa erabiliko dabez; izan be, turistetzako oinarritzako ikastaro bat egingo dabe eta baita hizkuntza bi horreetan zenbait kirol ekintza egingo ditue. Azkenik, ikasleak bertako zenbait laguntzaileguz hartu-emonetan



egongo dira: bertako ikasle euskaldunakaz eta baita bertako biztanleakaz.

Alkartrukeari amaierara emoteko ikasleak barbakoa egingo dabe eta bertako ikasleakaz agur festa antolatuko dabe. Ikasleen esanetan, daborduko joateko gogoz dagoz.

\* Alkarriketea joan aurretik egindakoa da.









# AKIKI MI KO

K  
a  
i  
l  
o  
R  
e  
n



## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### MOTORRA SALGAI

125 ccko motorra salgai. Kymco Agility City. Prezio onean. Interesdunak 699 615 008 telefonora deitu.

#### AIREA GIROTZEKO GAILUA SALGAI

Airea girotzeko gailua saltzean dot, 800 euro, barri-barria. Egurrezko sehaska opari. Interesdunak 620 276 471 telefonora deitu.

#### TEILAK SALGAI

Baseri konponketa baten osteko kurbadun teila erdibarriak saltzean dira. Prezioa 0,70 euro negoziagarriak. Telefonoa: 630 363 971.

### DANERIK ORTU BILA

Lur zati baten bila gabiz Igorren ortu txiki bat eta animalia batzuk ipinteko asmoagaz. Interesdunak 660 638 324 telefonora deitu.

#### ETXE BILA

Uritik alde egin guran Arratiako herri

baten alokairu bila dagoan Bilboko bikote gaztea gara. 685 787 387. Amaia eta Eneko.

#### LONJEA ALOKATZEN DA

Lonjea alokairuan Areatzan. 35 m<sup>2</sup> eta komuna. Egokia negozioa edo bulegoa jartzeko. Telefonoa 634 400 920.

#### IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, 4. DBHko Fisika eta Matematikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Telefonoa: 658 726 587.

**Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

BEGITUKO kamiseta bana.

Anuska Emaldi (Zeanuri)  
Gotxone Tutor (Zeberio)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean meda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • [seimmeda@hotmail.com](mailto:seimmeda@hotmail.com)

*Kepa Intxausti*  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**begitu**  
media etxeko sarrera

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 609 480 839 • 699 290 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3, 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-40-54


**ZEKUTZE**  
ZATETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
[zekutzejatetxea@hotmail.com](mailto:zekutzejatetxea@hotmail.com)

*Pinturas Anatia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIZARGINAK**  
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukunduten dogu  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



# SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko makineria



## ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

# ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINNTZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO  
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

